**2015eko URRIAREN 15eko UDALBATZARRA**
PLENO DE 15 DE OCTUBRE DE 2015

**BERTARATUAK /** ASISTEN**:**

**ALKATEA /** ALCALDE: **JOSU IRATZOKI AGIRRE**

**ZINEGOTZIAK** / CONCEJALES Y CONCEJALAS**:**
**Mª ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, IXONE TELLECHEA URANGA, AITOR ELEXPURU EGAÑA, GERMAN CASTILLO LAZCANOTEGUI, JOSE MIGUEL GORRIA VICUÑA, JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS, JUAN LOSA OCARIZ.**

**IDAZKARIA** / SECRETARIA: **PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK /** NO ASISTEN:
**MIKEL LERTXUNDI KORTA (oporrak /** vacaciones**), RAQUEL QUIROGA TAPIA (lana/** trabajo**).**

**Tokia: BERAko Herriko Etxea**
**Eguna: 2015-10-15**
**Ordua: 19:30**
**Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia**

Lugar: Casa Consistorial de BERA
Día: 15-10-2015
Hora: 19:30
Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

**TRATATZEKO GAIAK:**

ASUNTOS A TRATAR:

**1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-**

**2015.eko irailaren 24an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.**

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

Vista el acta de la sesión celebrada el día 24 de septiembre de 2015, por unanimidad SE APRUEBA.

**2.- IBARDINGO MANOLO BENTAko XEHETASUN AZTERLANA (174 eta 209. L. 4. P,) BEHIN BETIKO ONESTEA: -----------------------.**

***Idazkariak espedientea azaldu du eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

2.- APROBACIÓN DEFINITIVA ESTUDIO DE DETALLE EN VENTA MANOLO DE IBARDIN (P. 4, p. 174 y 209):------------------------.

*La Secretaria explica el expediente y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Ibardingo Manolo Bentako Xehetasun Azterlanaren espedientea, (4. poligonoko 174. eta 209. lur-zatiak) -------------------------------sustatua.-**
**Dokumentazioa: Xehetasun Azterlana -------------arkitektoak egina 2014ko irailaren 24an eta 2015eko abuztuaren 10ean ikusonetsia.**

Visto expediente del Estudio de Detalle de Venta Manolo en Ibardin (P. 4, p. 174 y 209), promovido por----------------------------.

Documentación: Estudio de Detalle redactado por el arquitecto---------------- fecha de visado 24 de septiembre de 2014 y 10 de agosto de 2015.

**Ikusirik, Nasuvinsak 2014ko azaroaren 7an eta 2015eko abuztuaren 20an eginiko txostenak eta Idazkaritzak 2015eko irailaren 18an egindakoa.**

Vistos informes emitidos por Nasuvinsa de fechas 7 de noviembre de 2014 y 20 de agosto de 2015 y por Secretaría de fecha 18 de septiembre de 2015.

**Urtarrilaren 23ko 15/2015 Alkatearen Ebazpenaren bidez espedientea jendaurrean jarri zuen.**

Por Resolución de Alcaldía 15/2015, de 23 de enero, se sometió el expediente a exposición pública.

**Izanik, jendaurreko epean ez dutela alegaziorik aurkeztu.**

Siendo que no se ha presentado ninguna alegación en el plazo de exposición pública.

**Hirigintza eta Lurraldearen Antolamenduari buruzko 35/2002 Foru Legearen 74. eta 76. artikuluarekin bat etorriz.**

De acuerdo con lo establecido en el artículo 74 y 76 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

**ERABAKI DUTE:**

SE ACUERDA:

**1) ------------------------------k sustatutako Ibardingo Manolo Bentako Xehetasun Azterlana, 4. poligonoko 174 eta 209. lur-zatiei dagokiena, behin betikoz onestea.**

1) Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle de Venta Manolo en Ibardin, correspondiente a las parcelas 174 y 209 del polígono 4 promovido por-----------------------------.

**2) Behin-betiko onespen hau bai eta haien barreneko hirigintza arauak ere Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.**

2) Publicar en el Boletín Oficial de Navarra esta aprobación definitiva, así como las normas urbanísticas contenidas en ella.

**3) Erabaki hau nahiz onartutako Xehetasun Azterlana honen ale bat eta emandako txosten teknikoak Nafarroako Gobernuko lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko departamentu eskudunari igortzea.**

3) Trasladar este acuerdo junto con un ejemplar del Estudio de Detalle aprobado e informes técnicos emitidos al departamento competente en materia de ordenación del territorio y urbanismo del Gobierno de Navarra.

**4) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.**

4) Notificar este acuerdo al interesado.

**3.- 2016.ko UDAL ZERGEN KARGA/TA-**

3.- APROBACIÓN INICIAL TIPOS IMPOSI-

**SAK HASIERA BATEZ ONESTEA.**

***Alkateak Ogasun Lan batzordean proposatutakoa, soilik "plusbasliak" izeneko zerga igotzea eta beste gaineko berdin uztea, azaldu du eta Idazkariak prozedura. Horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

**Izanik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 64. artikuluaren arabera Udal zergen karga-tasak aldatzea ondorioak izan behar den urtea hasi baino lehen onetsi behar dela.**

**ERABAKI DUTE:**

**1) Lurraldeko kontribuzioari % 0,28ko karga-tasa ezartzea, aurten bezala.**

**2) Izaera urbanoko terrenoen balio gehikuntzaren gaineko zergaren karga-tasa aldatzea:**
**Gehikuntza errealaren zenbatekoa finkatzeko Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 175. artikuluaren laukian agertzen diren gutxienen urteko portzentajeak aplikatzea. Karga-tasa %15a izanen da.**

**3) Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari % 4,5eko karga-tasa ezartzea, aurtengo berdina.**

**4) Iharduera Ekonomikoen gaineko Zerga: 1,3 gutxieneko indizea aplikatzea, aurten bezala**

**5) Karga-tasa hauek jendaurrean paratzea 30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek**

TIVOS IMPUESTOS MUNICIPALES AÑO 2016.

*El Alcalde explica la propuesta de la Comisión de trabajo de Hacienda, subir solamente el impuesto de plusvalías y el resto dejarlo igual, y la Secretaria informa sobre el procedimiento. Tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Siendo que según el artículo 64 de la Ley Foral 2/1995 sobre Haciendas Locales de Navarra, las modificaciones de los tipos impositivos de los impuestos municipales deben ser aprobados antes del inicio del año en que hayan de surtir efecto.

SE ACUERDA:

1) Establecer el tipo impositivo del 0,28 % a la Contribución Territorial, como este año.

2) Modificar el tipo impositivo del impuesto sobre el incremento de los terrenos de naturaleza urbana:
Para determinar el importe del incremento real se aplicarán los porcentajes anuales mínimos del cuadro del artículo 175 de la Ley Foral de Haciendas Locales.
El tipo impositivo será el 15 %.

3) Establecer el tipo impositivo del 4,5% al Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, igual que este año

4) Impuesto de Actividades Económicas:
Aplicar el índice mínimo de 1,3, al igual que este año.

5) Exponer al público dichos tipos impositivos, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos e interesados legítimos

**denbora horretan espedientea aztertzeko aukera izan dezaten.**

puedan examinar el expediente.

**6) Erreklamaziorik, aitzakiarik edota oharrik egiten ez bada, aipatu denbora pasatu ondotik, aipatu karga-tasak behin betikoz onetsi direla ulertuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.**

6) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones, una vez transcurrido el plazo indicado en el punto anterior, los tipos impositivos citados se entenderán aprobados definitivamente. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.

**4.- TASAK ETA PREZIO PUBLIKOEN TARIFAK ALDATZEA, HASIERA BATEZ ONESTEA, 2016.ko EKITALDIA.**

4.- APROBACIÓN INICIAL MODIFICACIÓN TARIFAS TASAS Y PRECIOS PÚBLICOS, EJERCICIO 2016.-

***Alkateak aipatu du Ogasun Lan batzordean datorren ekitaldirako tasa eta prezio publiko guztiak igo gabe gelditzea proposatu dutela, bakarrik aldatuko da katastroko orria berriro sartuko dela, Idazkariak,ere, prozedura azaldu du eta horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*El Alcalde comenta que en la Comisión de trabajo de Hacienda han propuesto no subir los precios públicos y tasas para el próximo ejercicio, sólo cambia el cobro de la hoja de catastro que se introduce de nuevo, luego la Secretaria explica el procedimiento y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, 2016.eko Tasak eta Prezio Publikoen tarifak aldatzeko espedientea.**

Visto expediente de modificación de las tarifas de las Tasas y Precios Públicos para 2016.

**Kontuan hartuz, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluak eta Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 13. artikuluak xedatzen dutena.**

Teniendo en cuenta lo establecido en el artículo 325 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local y en el artículo 13 de la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales.

**ERABAKI DUTE:**

SE ACUERDA:

**1) 2016. ekitaldirako Udaletxean dauden prezio publiko eta Tasak ez aldatzea, segidan adierazten dena izan ezik.**

1) No modificar las tasas y precios públicos existentes en el Ayuntamiento para el ejercicio de 2016, salvo la que se expresa a continuación.

**2) 2016. ekitaldirako honako Tasa hauen tarifak, espedientean daudenak, hasiera batez aldatzea onartzea:**

2) Aprobar inicialmente la modificación de las tarifas de las siguientes tasas, según constan en el expediente:

- ***Agiriak tramitatu eta luzatzeagatiko tasak.***

- *Tasas por tramitación y expedición de documentos.*

**3) Tarifa hauek jendaurrean paratzea 30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan espedientea aztertzeko aukera izan dezaten.**

3) Exponer al público dichas tarifas, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos e interesados legítimos puedan examinar el expediente.

**4) Erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten ez bada lehen aipatutako epean, hasierako onespen hau behin betiko bilakatuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.**

4) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones en el plazo indicado en el punto anterior el acuerdo de aprobación inicial pasará a definitivo. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.

**5) Behin betiko onespenaren ondoren, Nafarroako Gobernuaren Ordenantza Fiskalaren Erregistrora aldaketa hauek bidaltzea.**

5) Una vez realizada la aprobación definitiva, remitir estas modificaciones al Registro de Ordenanzas Fiscales del Gobierno de Navarra.

**5.- ORDENANTZA FISKALA, INGURUMENA BABESTEARI ETA JARDUERA KALTEGABEEI DAGOKIENEZ BAIMENAK EMAN ETA ADMINISTRAZIOKO KONTROL-JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA, HASIERA BATEZ ONESTEA.**

5.- APROBACIÓN INICIAL ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LAS TASAS POR OTORGAMIENTO DE AUTORIZACIONES Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES DE CONTROL EN MATERIA DE PROTECCIÓN AMBIENTAL Y ACTIVIDADES INOCUAS.

***Idazkariak azaldu du kasu honetan Ordenantza berria egin dutela jarduera sailkatuak eta jarduera kaltegabeen prozedura aldatu delako, erantzukizunezko aitorpenak sartu dira eta zegoen ordenantza egokitu behar zela.***
***Segidan, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*La Secretaria explica que en este caso se ha redactado una nueva ordenanza porque se ha modificado la normativa de las actividades clasificadas y de las inocuas, se ha introducido la declaración responsable por lo que había que adecuar la ordenanza existente.*
*Posteriormente, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, ingurumena babesteari eta jarduera kaltegabeei dagokienez baimenak eman eta administrazioko kontrol-jarduerak egi-**

Visto expediente de aprobación de la Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por otorgamiento de autorizaciones y realización

**teagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala onesteko espedientea.**

de actividades de control en materia de protección ambiental y actividades inocuas.

**Kontuan hartuz, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 325. eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 13. artikuluek xedatzen dutena.**

Teniendo en cuenta lo establecido en los artículos 325 de la Ley Foral de Administración Local y 13 de la Ley Foral de Haciendas Locales.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) **Ingurumena babesteari eta jarduera kaltegabeei dagokienez baimenak eman eta administrazioko kontrol-jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak zergatzea.**

1) Aprobar la imposición de las tasas por otorgamiento de autorizaciones y realización de actividades de control en materia de protección ambiental y actividades inocuas.

2) **Ingurumena babesteari eta jarduera kaltegabeei dagokienez baimenak eman eta administrazioko kontrol-jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskala hasiera batez onestea.**

2) Aprobar inicialmente la Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por otorgamiento de autorizaciones y realización de actividades de control en materia de protección ambiental y actividades inocuas.

3) **Aipatutako Ordenantza jendaurrean paratzea 30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa eta oharrak jartzeko aukera izan dezaten.**

3) Exponer al público dicha ordenanza, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos/as e interesados/as legítimos/as puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos y observaciones.

4) **Erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten ez bada lehen aipatutako epean, hasierako onespen hau behin betiko bilakatuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.**

4) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones en el plazo indicado en el punto anterior el acuerdo de aprobación inicial pasará a definitivo. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.

**6.- “ZIGORRIAGA-LARUNALDEA”ko MENDIAN, “OIARNO” PARAJEKO OHIAN-APROBETXAMENDUAREN ENKANTEA (PEFC ohian ziurtagiria) ESLEITZEA.**

6.- SUBASTA FORESTAL APROVECHAMIENTO FORESTAL EN MONTE “ZIGORRIAGA-LARUNALDEA”, PARAJE DE “OIARNO” (certificación forestal PEFC) ADJUDICACIÓN.

***Idazkariak espedientea azaldu du eta, aho***

*La Secretaria explica el expediente y, por*

*batez, honako erabakia hartu dute:*

*unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, "Zigorriaga-Larunaldea" mendian, "Oiarno" parajeko oihan-aprobetxamenduaren espedientea (PEFC ohian ziurtagiria):**

Visto expediente de aprovechamiento forestal en el paraje "Zigorriaga-Larunaldea", paraje "Oiarno" (certificación forestal PEFC):

| Lote | Paraje | Especie forestal | Nº pies | Volumen de madera | Volumen de tronquillo y embalaje | Volumen total | Valoración |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Oiarno | Pino insignis | 2.137 | 2.536,04 m.c. | 634,01 m.c. | 3.170,05 m.c. | 74.813,11 € |

**2015eko maiatzaren 12an Udalak eginiko Osoko Bilkuran oihan-aprobetxamendu horiek enkantean saltzea eta hau hutsik gelditu ezkero %10 eta %20 merkeago ateratzea, bigarren eta hirugarren enkantean, hurrenez hurren, erabaki zuen.**

El Ayuntamiento en el Pleno celebrado el 12 de mayo de 2015 acordó sacar a subasta la venta de dichos lotes forestales y si aquélla quedara desierta sacarlo con el 10% y 20% de rebaja, en segunda y tercera subasta, respectivamente.

**Ikusirik, joan den uztailaren 31ko Kontratazio Mahaiaren akta non enkante honetan aurkeztutako enpresa bakarra, Embalajes Martínez s.l., onartzea erabaki zuen.**

Vista el acta de la Mesa de Contratación del pasado 31 de julio en la que se acuerda admitir en la subasta a la única empresa presentada Embalajes Martínez s.l.

**Ikusirik, joan den abuztuaren 19ko Kontratazio Mahaiaren akta, non aprobetxamendu honen lotea Embalajes Martínez s.l. enpresari behin behinekoz esleitzea erabaki zuen.**

Vista el acta de la Mesa de Contratación del pasado 19 de agosto en la que se acuerda adjudicar provisionalmente el lote del aprovechamiento forestal de esta subasta a la empresa Embalajes Martínez s.l.

**Izanik, sexteo-epean ez dutela hobekuntza ekonomikorik aurkeztu.**

Siendo que en el plazo de sexteo no ha sido presentada mejora económica alguna.

**Izanik, baldintza administratiboen pleguaren 10. oinarrian jarritako dokumentazioa behin behinekoz esleitutako enpresak aurkeztu duela.**

Teniendo en cuenta que la empresa adjudicataria provisional ha presentado la documentación exigida en la cláusula 10 del pliego de condiciones administrativas.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) **Enkante honen lotea (PEFC ohian ziurtagiria) eskainitako kopuruan, hau da, 90.375 eurotan, (BEZ gabe), Embalajes**

1) Adjudicar a la empresa Embalajes Martínez s.l. en la cantidad ofertada de 90.375 euros (sin IVA), el del aprovechamiento

**Martínez s.l. enpresari esleitzea.**

forestal de esta subasta (certificación forestal PEFC).

2) **Esleipen hau, Nafarroako Gobernuko Mendi Zerbitzuaren baldintza tekniko eta Udalak onartutako baldintza-pleguari jarraikiz izanen da. Baldintza-plegu hauek akordio honekin batera bidaliko zaizkio interesatuari.**

2) Esta adjudicación se hace de acuerdo al pliego de condiciones técnicas del Servicio de Montes del Gobierno de Navarra y al aprobado al efecto por el Ayuntamiento, cuyas copias se adjuntarán a la notificación de este acuerdo.

3) **Baldintza administratiboen 11. klausulari jarraikiz esleipen hau jasotzean eskainitako prezioaren % 25a ordaindu behar duela enpresa esleipendunari adieraztea.**

3) Comunicar a la empresa adjudicataria que de acuerdo con la cláusula 11 del pliego de condiciones administrativas deberá realizar el pago correspondiente al 25% del precio ofertado al recibo de esta adjudicación.

4) **Era berean, 4. klausularen arabera ohian aprobetxamendua hasi baino lehen esleipen-prezioaren %35aren abala aurkeztu behar dutela gogoraraztea.**

4) Igualmente, recordarle que según la cláusula 4 deberán presentar aval del 35% del precio de licitación antes del inicio del aprovechamiento.

5) **Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuaren Mendi Zerbitzuaren Oihanak Kudeatzeko Atalari eta esleipendunari jakinaraztea.**

5) Notificar el presente acuerdo a la empresa adjudicataria y a la Sección de Gestión Forestal del Servicio de Montes del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra.

**7.- LAN BATZORDEAK ALDATZEA.**

7.- MODIFICACIÓN COMISIONES DE TRABAJO.

***Aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*Por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**ERABAKI DUTE:**
**1) Hirigintza Lan batzordean zinegotzi hauek sartzea:**
**German Castillo Lazcanotegui eta Jose A. Oyarzabal Iribas.**

SE ACUERDA:
1) Incorporar a la Comisión de trabajo de Urbanismo a los siguientes concejales:
Germán Castillo Lazcanotegui y José A. Oyarzabal Iribas.

**8.- JOSE A. ALZUGUREN “KOTTO” HIL ZENEKO 10. URTEMUGA.**

8.- 10ª ANIVERSARIO DEFUNCIÓN DE JOSE A. ALZUGUREN “KOTTO”.

***Alkateak mozioaren testua irakurri du eta zinegotzi guztiak ados agertu dira Juan Losa izan ezik abstenitu dela. Beraz, gehiengoz,***

*El Alcalde lee el texto de la moción y todos y todas las concejalas votan a favor salvo Juan Losa que se abstiene. Por lo que, por mayoría,*

| | |
|---|---|
| ***mozioa onartu dute honako testua izanik:*** | *aprueban el siguiente texto de la moción:* |

Joxe Angel Altzuguren Perurena, “Kotto”, beratarra, 20 urterekin Udal honetako zinegotzi aukeratu zuten eta bi legegintzaldiz aritu zen Berako udaletxean lanean. Kultura, kirola, euskara, mendia eta ingurugiroari lotutako gaiak zituen gustokoen eta udaletxetik bultzada ederra eman zien hauei.

Aurten, 10 urte betetzen dire, arrazoi politikoak direla eta bigarren aldiz espetxeratua izan ondotik, bere ziegan bakarrik, isolatua eta behar zuen mediku arretarik gabe zegoela, bere kondenaren 3/4ak beterik izaki, hilik harrapatu zutela.

Egoera politikoa aski aldatu da azken urteetan, eta bake eta normalizazio bidean aunitz egin da aintzinerat. Urrats garrantzitsuak eman dire gure Herriak pairatu duen gatazka armatua moldatzeko, eta horrela, bertze garai bat ireki da.

Tamalez, Estatuaren indarkeriak bere horretan dirau, eta gauzak horrela, “Kotto”-k kartzelan bizitu zuen egoera berdina bizi dute hainbat eta hainbat euskal preso politikok gaurko egunean. Nabaria da arlo honetan ez dela batere aurrerapausorik eman nahi. Euskal preso politikoen eskubideak egunero zanpatzen segitzen dute Espainiar eta Frantziar estatuek, erabat bidegabea eta zentzugabekoa den sakabanaketa politikarekin jarraituz. Baina, hori gutti balitz, gatazkaren mami eta ondorioak behar bezala moldatzeari ekin beharrean, Frantziar eta Espainiar estatuek atxiloketekin jarraitzen dute, Herri honek merezi duen konponbidea saihestu nahirik.

Egoera hau ikusirik, Berako udalak bere konpromisoa berresten du bake eta normalizazio bidean beharrezko diren pausoak bultzatzeko, eta honako neurri hauek proposatzen ditu:

1- Euskal preso politikoek bizi duten salbuespen egoera behin-betiko bukatzea, eta dituzten eskubideak errespetatu daitezela. Sakabanaketa politikaren behin-betirako amaiera beharrezkoa da.

2- Prozesua oztopatzea bertze helbururik ez duten erasoak amaitu daitezela. Atxiloketek konponbidea saihestu bertzerik ez dute egiten, eta horrek ondorio hagitz larriak ditu gure Herriarentzat.

3- Etorkizuneko elkarbizitzaren mesedetan, beharrezkoa da gatazkaren beroan gertatu diren eskubide urraketa guzien balantzea egitea, salbuespenik gabe. Soilik ETAren ekintzak aintzat hartzen dituzten kontakizun partzialek ez diote inolako mesederik egiten Herri honi. Argazki osoa izan eta ikusi ahal izatea ezinbertzekoa da.

Bertzalde, Udal honek bere atxikimendua adierazten du “Kotto”-ren heriotzaren 10. urtemugaren harira, Urriaren 30 eta Azaroaren 1 artean, antolatu den herri egitarau zabalarekin. Halaber, parte hartzeko deia luzatzen die beratar guziei.

| | |
|---|---|
| **9.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-** | 9.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.- |

**Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:**

**1) Bandoak: B20/2015etik B21/2015era.**

**2) Ebazpenak: 2015eko irailaren 22ko 262. ebazpenetik 2015eko urriaren 8ko 271.e-ra arte.**

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

1) Bandos: B20del /2015 al B21/2015.

2) Resoluciones: De la resolución nº 262 de 22 de septiembre de 2015 a la nº 271 de 8 de octubre de 2015.

**10.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.**

10.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

**Ez dira burutu.**

No se producen.

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:20tan.**

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 20:20 horas.

**O.E. ALKATEA/** V.B. EL ALCALDE
Josu Iratzoki Agirre

**IDAZKARIA/** LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta